

## Donosti'n Aldundi-Jauregian, 1923'ko Azaroa' ren 23'an.

Aurako batzaraldian aipatu diran euskaltzain jaun berak alkietan daude eta urgazletatik Bahr eta Ormaetxea jaunak.

1. Bahr jaunak jaraitu du bere itzaldia, Schuchardt jaunaren aburua azaldurik. Amaitu duenean Eguskitza jaunak erantzun dio ta bere itzaldian agertu du ez dala euskal-aditza beñere *pasivo* izan *activo* baño. Eguskitza jaunaren itzaldia gure *Euskera'n* azalduko da.

2. Azkue jaunak bere lan bat irakurri du: *Antziñako erdera ta eguneko euskera*. Euskaltzañak pozik entzun diote.

3. «Paradigma de declinación vasca» deitzen dan lantxo bat azaldu da euskaltzain artean, abek ikusi, aztertu ta beren eritxia ager dezaten.

4. Kanpion jaunak Napar-egunari batek dakaeren idazki bat irakurri du. Idazki oren gaya auxe da. *Osto* ta *oñi* euskal-itzen banakoitza.

5. Ormaetxe urgazle jauna Euskaltzaindiak deitu du lan batzuek ekiteko. Oraingoz, *Erizkizundi-Irukoitza*-ri dagozkiona egotzi zaio. Lanaren eraz eman-go zaio saria, bañan ordaindu bear zaizkio beriala lan oreak beregan dituen joan-etoñen eralketak.

Beste gairik izan ez da, amaitu da batzaraldi au oiturazko otoitez.

---